


# 7ER

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

292n. zenbakia  
zezeilla 2004



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



## LIEBANO'KO TORIBIO DEUNA

**ATE NAGUSIA: - XII GIZALDIKOA**

- TURUTA TANKERAKO ERROMANIKOA
- PIZTIAK, ABEREA, LANDARAK, GIZAKIAK

# BIRIBILLA

## PELOTA-JOKOA

Gauza biribilla dirudi gure ametsak.

Lenengo begiratu daigun gure aurrean daukaguzan gauzetara. Jolaserako pelotea biribilla da. Ta denpora pasagarri ta gorputz ta gogo osasuna zabaldu ta sendotzeko orixe bear mutil koskor ta gazteak. Mundu guztian geurea, izan bere, esku pelota jokoa ta ortarako trebetasuna.

Pelota partiduak ikusi ezker, an, agertzen dira euskaldun gaztearen begia, burua ta gorputz liraintasuna.

Bere gogo da, zintzotasunez jokatuta egokitasuna ta artea agertu ta ikusle guztiari ederraren poza ta atsegiña emotea. Peloteak daroa ba, itsu-itsuan, pelotariak emon dautson ariña, indarra ta abildadea.

Ta pelota biribil ta gaztearen trebetasunaz, jende guztia, gora gora, ipinten dana urrezko partidu biribillak urten dau.

Ta ondoren zenbat zer esan gozo, jakintsu ta pozgarri jendearen artean.

Ortarako da izan be, gizonaren bizia.

Umea ez da jaio atsekabez minduta nekepean, negarrez, bizitza saminpean bizi izateko. Berezko deia da pozaren naia, aurrerapidearen egarria.

Mundu ontan nekeak utsik emongo ez danan ezker, nekeak, pozak, negarrak, aurrerapideak, ondamuak eta laguntza onak, danen artean, kate biribil bat osotzen dabe. Ta gu katei biribil orren barruan gabiltzaz.

## ALDIA

Aldiari buruz be, bardin, jazoten da.

Il batak bestea dakar ondoren, ta olan, aldi barriak, tarteka-tarteka, sortzen dira.

Danak dira ederrak, baiña euren artean bat da illun eta baltze-

na, negua. Aldi orretan sartzen garanean, kolore gorritzka ta baltzak zurbildu egiten dira, biziak sarrigo alde egiten dau gizartetik. Solo ta mendiak igartu egiten direla dirudie, bizia lurrean, askoz, motelago agertzen da. Dana berantza doala esan lei ta ori dala-ta, udabarriari begira, antziz, egon oi gara.

## UDABARRIA

Ta askenean be, aldiaren legea betetan danean, emen da, guk maite dogun udabarria.

Udabarri itxaroa maitasunezko argia da... Personak, arkaitzak, mendiak, larra-bizkarrak, soloak, landak eta baratzak, danak, irriparez, agertzen dira.

Biziaren erne-miña agertzen asten da alderdi guztietatik.

Neguak eskua emon dautso udabarriari ta lurrean erraiak, oparo, urez asetuta itzi dautsoz.

Negu baltzak izan dau udabarriarentzat bere maitasuna, biziaren gurintasuna emon dautso.

Udabarriak, bai oster, eskar onez erantzun.

Alderdi guztietatik zugatz adarrak orbiztuten asi dira, azala didiz dakarrelarik. Bizia erne-miñetan, lora biurtzen asi da adar magal eta puntetan.

Neguko edurra lora zuri biurtu da udabarrian ta maietza da lorartean etorkizunaren itxaropena.

Maietza gogo askoren ametsa. Emen dago gure gogo guztia lurrean ezarrita. Dana lorea, usain gozoa, argia, kimu barriak sortzen eta lora zurietan zabaltzen, sagardi osoa ezteguetako soñeko zuri ederrez jantzi da.

Izadiaren Egillea eta lurra maitasunez beterik dagoz gizardiaren alde, frutu etorkizunaren itxaropena eskeiñiaz. Lurrak Egillearen bedeinkapenez ta gizonaren lanagaz lagundurik, janari onak emoten dautsoz gizaldiari.

PAULIN

## NASTEAN

### EUSKALDUNEN OPERAK

Bilbaotarrak eta bizkaitar asko be bai, opera-zaleak dira, Abao bazkunak agertzen dauan lez, baiña euskaldunak ez dira zaleak operak entzuten bakarrik, idazten be trebeak dira.

Euskerea bera be egokia da operak abesteko: dunduritsua ta errez erabiltekoa, abots bakartiak edo bokalak eta lagundunak edo konsonanteak neurri bardintsuan erabilten dauz, lagundun bi gitxitan alkartzen dira eta berben naiz esaldien doiñua be oso egokia da abesteko, beste edozein izkuntzatan baiño egokiagoa.

Orregaitik aspaldion indar aundia artu dau gure artean opereak.

Gaiñera Iparraldean ba-dago antxiñatik antzekoa dan jokera bat, "pastoralak" dira erdi-aroko "misterio"en ondorena

euskeraz. Oraintsu erakutsi deuskue ETB'n Makia Sule'ko pastoralak.

Egoaldean be XVIII gizaldian agertu eben Euskalerraren Adiskideak izkuntza bietara egoan "El borracho burlado" antzerki abestua. Urrengo Donostia'n, beste antzerki abestu asko galdu ondoren, euskeraz abestu zan "Prudente" Santisteban'en antzerki abestua edo opera, eta ondoren Iparragirre Gimón'ena eta oraintsuago Zapiarain'en Txaton Piperri eta Anboto.

Baiña eder-lan oneik ez ziran egokiro antzezten eta euren izen ona galdu egin eben. 1909n. urtean asi zan barririo zale-tasun au agertzen "Maitena" opereagaz. Ez zan ain ona, baiña Bilbao'ko Korallak emon eutson indarra Jose Power buru zala.

Laster sortu zan Euskalerrian'n operagille eta zaleen aldi barri bat eta or diz-

diratzen dabe izen ospetsu oneik: Jose Maria Usandizaga, Santos Intxausti, Jesus Guridi eta euren "Mendi-mendiyan", "Lide ta Ixidor", "Mirentxu" opera ederrak.

Gure Azkue aundia be bizi-bizi sartu zan ordukoa zan jokabide onetan eta bereak doguz eres-antzerki eta opera oneik: Vizcaytik Bizkaiara, Sasi-eskola, Aitaren bildur, Gainzabaleko eiztaria eta Eguzkia nora euskeraz eta bietara Colonia inglesa, Pasa de Chimbos. Eta beste iru oratorio: daniel, Lamindano eta Andra Urraka. Eta operen artean oneik sartu bearrekoak: Ortzuri eta Urlo.

Zaletasun au ez dala galdu agertzeko, oraintsu agertua da Manuel Lekuona'k egindako liburtuari jarraituz, Ezkudero'ren Zigor opera.

**OLAZAR'tar Martin'ek**

# BIZIA

## ASIEREA

Marte'n bizirik ete dagoan gabiltz aspaldion oso arduratuta eta izan be gauza arrigarria da bizia, orain bost bat milloi urte sortu zana.

Itxasoaren bazterren baten agertu zan gauza arrigarri au, barruko indarrak eraginda tokiz aldatzen zan izakia.

Asieran ez eukan sentipenik, baiña milloiak urteak geroago olako izaki batek lenengoz aiene esan eban, min eukalako, arrezkero ainbestetan esan dan aiene nekegarria.

Eta sentipena eukan izaki orretatik zabaldu ziran ainbeste eratako izaki sentikorrek, arraiñak, egaztiak, narraztiak eta lau ankadunak.

Oneitariko batek, baso baltzean bizi ziran tximino-antzeko batek, bere aideak aurrean erabilletako, lurralde leun eta zabaletara iges egin bear izan eban, eta, nok jakin zelan! pentsetan asi zan. Gaur arte aurrerapen arrigarriak egin dauz.

## AMA LURRAREN FRUTURIK ONENA

Lurrean ain zabal dabilzan bizidunak eta gizakiak, ama lurraren fruturik ederrena dira. Ez dakigu kosmos zabalean beste inon olakorik jazo dan. Baietz dirudi.

Poz aundia da gutzat izarbel guztietan geure antzeko bizidunak dirala uste izatea, kosmos au biziz beterik irakitan lez dagoala iruditzea.

## GIZAKIEN ALMENIK AUNDIENA

Bizidun, zentzundun eta gizaki oneik dauken almenik txalogarriena, euren antzeko bizidunak sortzeko, bizia zabaltzeko dauken almena da.

Almen oneri eskerrak, gutzat aldien betetasuna eldu zanean, lurraren bazter baten gutariko bakoitza munduratu eta bizidunen, gizakien, artera sartu zan. Au da poza daukaguna! Au da eskerra gure gurasoai agertu bear dautseguna!

## ALDIRAKO EMOITZA

Baiña bizia deritxogun emaitz aundi eta eder au ez jaku betiko emon, epe labur baterako baiño. Betiko bizia daukagula fedeak gaiñeratu dausku, baiña berez eriotzarako deia daukagula ondo dakigu.

Gizakumeak pizka bat laburrago, emakumeak zerbait luzeago, baiña geienetan eun urteren barruan amaitzen da emaitz maitagarri au.

Orregaitik gure bizia unerik une onuratu bear dogu eta al dogunik ondoen zaindu.

## BIZIAREN ARERIOAK

Atsegin baratzaren bazter baten zugea egoan antzera, bizidunen artean be nonnai aurkitzen doguz bizia kendu nai dauskuen arerio zitalak.

Batzutan geure barruan erasoten dauskuen gaisoak izaten dira, beste batzutan kanpotik datorkuz, baiña arerio onein aurka burrukatzeko zoli jokatu bear dogu.

## LUR-IKARAK

Noizean bein gure inguruan lur-ikarak sortzen dira. Sendoa dan lur-azala arrakalatu edo ikaratu egiten da eta ainbeste bizidun edo adimendun ondutzen dira. Orain-tsu jazo da olako bat, bildurgarria, Iran'en eta gitxienez 30.000 adimendun iruntzi edo zapaldu dauz lurak.

Olako jazokizunen aurka etxe sendoagoak egin eta toki egokiak aukeratu bear doguz, baiña beti izango dira ustebageko egoereak. Ez da beti izango gure aukeran arerio au alboratzea.

## ITXASOAN

Idia ibiltan dan lekuan geure urratsak ezarten doguzanean, ba-daukagu ziurtasun bat, baiña antxiñako olerkariak esan eban lez gizonak "fragilem truci commissit pelago raten" itxaso-ontzi makala ipiñi eban itxaso jatunaren aurrean. Batzutan arraiñak eskuratzeko bear-izanak eraginda, zenbat arrantzale iruntzi dauzan itxaso jatunak! beste batzutan andik ona ibilli-bearrak eraginda, zenbat gizaki ito ziran arako Titanik ospetsu aretan!, eta olako arriskura gizakiak sartu egiten dira. Arako esaldi zarra gogoratzen dogu:

-Zure aita non il zan?

-Itxasoan itota!

-Eta zeu be ausartu egiten zara itxasora joaten?

-Eta zure aita non il zan ba?

-Ogean, bake-bakean!

-Eta zu ogera joaten ausartu egiten zara?

## GUDAKETA

Baiña sarritan geu gizakiok izaten gara biziaren aurka gogorren jokatzan dogun geure arerioak, gudak egiten doguzalako.

Joan dan XX gizaldia arlo onetan txarra izan da: Zenbat gizaki il ziran ludiko guda ikaragarri bi areitan eta, pizka bat lenago, España'ko gudan bertan milloi bat izan ziran illak. Ez aitzu kizi edo atomozko lerkia!

Gaur bertan be, gudaren ondoren lez, millak ilten dira Israel'en naiz Irak'en.

### **BIDEETAKO IXTRIPUAK**

Beti baiña batez be aste-azken luzeetan, esaterako Gabon-aurrekoan, asko izaten dira bideetako ixtripuak egun baten 100 iltera arte.

Bide zabalak konpontzen diranean gitxiago izaten dira.

Orduan itaun au be egin bear litzake: Ainbeste ardura antzen da etatarak ilten dabezenai buruz, eta ondo dago, geiago be bear da, baiña bideetan gitxiago il daitez- zan eta etxeetako emazte illak gitxiago izan daitez- zan be ardura aundiagoa artu bear leuka Barru-Ministeritzak.

### **ETXEETAN**

Baiña urrago sartu jaku arerio iltzaillea. Astero entzu- ten dogu emazteak il dabezan senarren ankerkeriaren barria. Iñoz senarrak naiz seme-alabak izaten dira eraillak.

Maitasuna ta biziaren iturria dan sendia bera biurtzen dogu erailtzaille!

### **IZUKERIA**

Sarritan geure eritxiak aurrera aterateko bizidun giza- kiak erailtzeko bide negargarria artzen dogu.

Bakea sortu gura eta alperreko ainbeste eriotza egiten dira.

### **GOSEA**

Munduan guztiontzak daukaguz, ama-lurak emon-

da, janariak, baiña ondasunak txarto banatzen doguzala- ko, milloiak dira goseak ilten dauzan umeak eta elduak.

Gure aldi onetan daukagun pekaturik aundiena onda- sunak txarto banatzea da eta jokabide au urte batzuk barru amaituko dala diño. Alan bedi!

### **GAISOAK**

Gizakiaren azkena zeozelan etorri-bearrekoa da, baiña sasoi- a baiño lenago eltzen dira sarritan gaisoak. Eriotzarik geien eragiten dabenak biotzekoa ta min-bizia dira.

Arerio onen aurka burruka sendoa egiten dabe giza- kiak, eta aurrerapen asko lortu be bai.

### **JOLASETAN**

Non esango leuken-eta, geure gurariz egiten doguzan jolasak be sarritan izaten dira biziaren arerio: Mendietara igotera doazenak, eskietan ibiltzen diranak, ikubilka jolas- ten dabenak, zezenketan diarduenak, eta beste era askotara.

### **ODOLA EMOTEA-TA**

Biziaren alde eta arerioaren aurka egiten dogun ekintza txalogarri bat geure odola naiz gorputz-zatiak emotea da. Zenbat bizi aurreratzen diran onelan!

Ez dagigun itzi emon bagerik, emon al dogun odola naiz gorputz-zatia!

Izan gaitez- zan biziaren lagun, eta biziaren arerio diran jokabide guztien aurkalari!

**Olazar'tar Martin'ek**



## **ELEIZAREN EDESTIA EUSKERAZ GURA DOZU IRAKURRI ELEIZEAREN EDESTIA EUSKERAZ?**

Bixente Letiegi'ren liburuak eskatu egizuz:

- I.- Apostoluen eta martirien denporako Eliza.
- II.- Elizak eta estaduak bat egin zuten denporako Eleiza.
- III.- San Ignazio'ren denporako Eliza.
- IV.- Denpora barrietako Eliza.
- V.- Demokraziaren denporako Eliza.
- VI.- Denpora auetako Eliza.
- VII.- Euskal kristautasunaren sorkuntza.
- VIII.- Euskal kristautasunaren sendokuntza.

IX.- Euskal kristautasunaren zabalkuntza.

Liburu bakoitza 500 orrialde inguru dira. Ordaiña: Bakoitza sei euro. Baina irakurri nai ba'dozuz eta ezin erosi, egizu berba geugaz. Doan emoteko be gertu gagoz, fedea indartzeko ta euskerea zabaltzeko.

Eskatu: Martin Olazar  
XXIII Jon Z. enparantza 2.  
48100 Mungia (Bizkaia)

## EGUBERRIAK NAFARROAN

Negu erdiko egun ederrak datoz. Eguberriak. Urtero gero eta aguroago asten dira dendariak beraien produktok eskeintzen. Segidan nabaritzen da badatorrela Olenzzero, Urte zaar-urte berriko jaia eta Erregeak. Baina, garrantzitsuena da mundo onetara Jesus Jainkoa guregan heldu izan zela egun orietan.

Orain kontatuko dizkizuet nolakoak ziren nire aurzaroko Eguberriak, Nafarroako goi aldeko erri txiki batean. Egun, bearbada jende geingoeek atzendurik dituzten oiturak.

Lehenago, egun auetako festa andiena egiten zen aurtxoei begiratzuz. Orain, zoritxarrez, alderdi hauetako erri askotan ez dago aurrik ere, eta uste dut ez dituztela aintbertzeko ospakizunik eginen.

Ala ba, abenduaren 24ko gauean, eta Gauerdiko Meza baino leen, aite zenak bidaltzen zigun larrañera egurrak eske. Andienak eman bear zuen egur andi bat, erdikoak txikixagoa eta txikiek txiki bat bakoitzak. Baztarreko andia San Jose zen, erdikoa Ama Birgiña eta txikia Jesus aurra. Ori zen jartzen genuen belena, sutondoan. Gero aite asten zen kontuak kontatzen, A!, zenbat eta zenbat zekizkien!!. Beti, eta leenbizikoa kontatzen ziguna zen Olenzzeroarena: “Mendian bizi zen gizona ikatz egiten, baina Eguberri gauean errira zetorren puskak artzera. Puska guztiak artu eta argitu baino leen bueltatzen zen bere txabolara, urrengo urte arte”.

Eta Urte Berriko festa. Orduan ez zen egiten gauez ezer. Festa andia zen baina eguberrikoa, egunez. Egun horretan goiz goizetik asten ginen boltsok prestatzen etxez-etxe “urtaxak” artzera joan bear zelako. Eta karrike guzie barna, eta etxez-etxe. Au zen kantatzen genuen kanta:

“Xiribiri, dagoneko  
Urte berri eguneko:

Aingeruek gara,  
zerutik heldu gara  
boltsak battugu  
dirurik ez dugu

Urtaxak, urtataxak  
Bear dittugu.”

Errege bezpera ere ospatzen zen, Haiek ekartzen baizituzten opariak. Xuarbeko mutiko andiak etortzen ziren Ilarregira argiekin. Kalabazeei argizari bat sartzen zioten. Eta yoareak eta pulunpak ere bai zeramaten. Pulunpa andiak zuten arroitugari ateratzen zutenak bideertzetan.

Oitura auen berriak bidaltzen dizkiodanean ZER irakurle adiskideoi, Eguberri ederrak opa dizkizuet.

**XOLE ERBITI**

### EUSKALERRIA ERDIAROAN

Gauza gitxi dakigu gure erdiaroko edestiari buruz: IX gizaldian agertzen dira lenengoz Bizkaia eta Araba izenak eta XI'ean Gipuzkoa.

Euskaldunak auzoetan alkartuta bizi ziran, ermita baten babespean eta euren arduraduna urtero aukeratzen ebela. Ez dakigu noiz asi ziran goragoko maillako batzarrak, Gernika'koak edo.

Auzoak 4'tik 10 etxerakoak ziran eta ibarretan alkartzen ziran. Araba'n kuadrillak ziran eta Bizkaia'n merinaldeak.

XIII gizalditik daukaguz baserriak eta euskaldunak onak ziran salerosketan eta itxas-lanetan. XI gizalditik XIII'ra atzeratuak gara baiña XIV gizaldian, guztiak esaten jaken bizkaitarrak, eta oso trebeak agertzen dira Europa'ko kai guztietan. Ori izan zaitekeen aldi orretan 88 uri sortzen dira, 21 Bizkaia'n.

**Olazar'tar Martin'ek**

---

# MIGEL LANDA

## Agaz berbetan

(MATRICIko beargina izanekoa)

---

**MATRICI: Zelan aldatu da zure bizitza erretiroa artu zenduanetik ona?**

**Miguel Landa:** Sano aldatu da. MATRICIn emon nebazan azkenengo urteak gogor-gogorak izan ziran, batez be gure sailakoentzako. Euki dodan gaixotasunak ez deust lorik galazo.

MATRICIk, ostera, bai. MATRICIk etapa ezatsegin ori bein betiko itxi eta ohea dan bete bat asiko aal dau.

Neure aldetik, beintzat, asi naz asi be, etapa barrian bizitzan.

MATRICI erreferentziatzen zein neure-neure dan zaitzat artuten dodan arren, belarrietara etorten jatazan ango barrien alde baikorrari baino ez deustot jaramonik egiten.

Sano arin egokitu naz bizitza barrira eta beti euki dot zer eginik.

Ordutegi zeatza eratu deustot nire buruari eta zorrotz-zorrotz beteten dot a. Goizez, arrantzan joan, soloan bear egin eta lagun dodan Zarragagaz (berak aal dauanean) perretxikotan joaten naz, eta arrastiz, zortzi kilometroko ibilbidea egiten dot, egunero egin be.

**M: Lortu dozu agur-afarian emon jatzun txekoa kobretea?**

**ML:** Jakina ezetz, baina egunen baten kobratuko dot. Ori egiteko itxaropenik ez dot galdu, oraindikarren nire eskuetan dago eta.

**M: Zelango gomutea dakartsu MATRICI berbeak?**

**ML:** Sasoi atan, MATRICIren enpresa eredia onena zan neuretzako; orduan, kapitalismoa eta sozialismoa egozanean. Gaur egun, barriz, danak dira sano bardintsu.

MATRICI (kooperatibismoa, atan be) bear egiteko era ezbardina zan, bertan norbera beargina izanda, norberak enpresearen gestioan artuten eban esku, enpresea norberaren zatitza artuta.

Batzar orokorretan esku artuten genduan eta gestino planak goitik beera aztertuten genduzan, geuretzako obakuntzak eta enpresea bera andituteko ziralakoan.

Egundoko taldea zan, geure artean eritxi ezbardinak egon arren, jakina.

Buruzagiak bearginik zeatzenak ziran, danontzako eredugarriak.

Guk geuk egindako bearraren arabekoak, ziran.

Gaur egun, MATRICI azpikontratatzino enpresa biurtu da. Bertan, enpresearen kostuak txikituteko eskubear merkea erosten aaleginak egiten dira, eta bearginari bein beti-

ko bearleku eukiteak zein aalik eta dirurik geien irabazteak baino ez deustot ardura.

**M: Zer lortuten jatzu MATRICIn ainbeste urtean bear egin otean?**

**ML:** Zer lotuten jatan MATRICIn ainbeste urtean bear egin otean:

Bizitzan sano baikorra izan naz beti eta gomuta polita lotu jat. Uste dot nire aalmena dan baino bearleku andiagokora elduta lortu nebala, batez be, bearlagun gazte eta ekintzaileak inguruan euki dadazalako Orreek asko lagundu deuste.

Gauza izan gintzazan taldean bear egiteko, bakotzak eukan onena emoteko. Eskarmentu andirik ez eukanari ikasi neutson, orrek, normalean, asko irakasteko dauka eta.

Gazteen eritxiei entzuten ikasi neban, eta merezi eben baloratu nebazan.

Teknologi barrietako munduan sartuten ikasi neban. Orretarako, olakoetan ni baino askoz be trebeagoak diran bearlagun gazteak baino apalago ibili bear banaban be. Eurai apurka-apurka ikasten aalegindu nintzan (neuretzako gogorra eta gatxa zalako).

Labur esanda, uste dot MATRICIn pertsona edegiagoa izaten eta, batez be, gazteengan uste ona izaten ikasi dodala, etorkizuna eurak dira eta.

**M: Zein izan da MATRICIn bizi dozun unerik ezatseginena?**

**ML:** MATRICIn emon nebazan azkenengo edunak (2000ko urrian, apur gorabeera) ezatseginenak izan ziran.

Ez dodaz barriro orduan sortu ziran giroa eta gorabeerak gogoratu gura.

**M: Eta unerik atseginena?**

**ML:** Une atsegin edo on asko bizi izan dodaz. Batez e, teknologia barrien ibilbidean ilusino andiagaz asi gintzazanean, esaterako, arlo barribarrirako atea gure aurrean zabaldu zanean.

**M: Zegaz gomutetan zara CAD-CAM arloa Parisen ikasten ibili zintzazanean?**

**ML:** MATRICIn emon dodazan etapetan onenatarikoa izan zan.

Egia esan bear badot, CAD-CAM deritxonaren ganean Parisen ikasi neban bakarria izena baino ez zan izan, tek-

nologia barriak ikasten 40 urtegeaz asi nintzalako, eta neuretzako ordenagailuaren mundua ain zan barria, ze bildurapur bat eragiten eustan. Teklatua apurtuteko bestekoa zan bildurra.

Ostean, neure bearlagunak maisu ziran orretan, ori ikasita jaiio izan balitzaz lez.

Baina gauza bat argi geratu zan, nik neukan eskarmen-tua ekarri neutsen eta eurak niri ordenagailuaren erabilke-rea, eta alkarregaz talde ona egin genduan.

**M: Zegaz gomutetan zara 80ko amarkadan euske-  
ra ikasten asi zintzazanean?**

**ML:** Orduan, umeak ikastolara bialduten nebazan eta etxean euskeraz egiten zan.

Alan bada, neuretzako bearrizan morala izan zan. An bizitzako guztia on-ona izan zan. Bertan egozan ikaski-deak -eta jator-jatorrak ziran eta ederto baten pasau gen-duan.

Geure ama berbetea ikasten joaten gitzazan.

An emondako denporea labur lotu jatan, bearra dala-eta, frantsesari ekin bear izan neutson eta.

**M: Ze eritxi dozu gaur egun MATRICIn indarrean  
dagoan euskera planaren inguruan?**

**ML:** Egundokoa deritxot, trukean bape itxaron barik, oraindinokarren olango asmo politen alde inork aaleginak egiteari, eta smo ori MATRICIko giroa euskaldunentzako bada, birrian nator bat bete-betea orregaz.

**M: Zelango etorkizuna ikusten deitsozu MATRI-  
CIri?**

**ML:** Bearginen aldetik, MATRICI indar andi-andia daukala uste dot, zein enpresa lez be izen on-ona.

Gauza biotan naikoa zuztar sendoak artuta ikusten dot, etorkizunari indartsu aurre egiteko.

Orretarako baina, koordinazino-arloan eta eskura dau-kezan baliabideak erabiltzeko gauza izango diran talde eragileak trebatu bear dira.

Talde orreek eguneratze iraunkorrean bizi bear dabe, elburuak lortu eta merkatuan errentagarriak izan aal izateko.

**M: Esango deuskuzu bizi dozun bitxikeriaren bat  
edo?**

**ML:** Beinola baten, Madrilera bialdu ninduen. Bertan, ordenagailu barri baten aurkezpena joan bear neban. Bein antxe nengoala, beingoan konturatu nintzan azalpe-nak ingelesez zirana. Alan bada, itzultzailearen laguntzi-noa eskatu neban.

Ez egoan itzultzailerik ekarteko erarik. Koskorrik be ez neban ulertu batzarrean. Batzar atan, eskua altzauta auke-ratu bear izan zan a eta bestearn artean. Inglesez ez nekian lez, geiengoak aukeratuten ebana axe nik be auke-ratuten neban.

Batzarra amaitu ostean, esan eusten batzar a ez zala ordenagailu aren aurkezpen ofizialerako, aren enpresea-ren zuzendaria aukeratuteko baino.

**Iniaki MARTIARTU  
BAKIO**

## NASTEAN

### ASMATZAILLE EUSKALDUNAK

Euskalerria'n asmatzaille asko izan dira eta entzutetsuak, ona emen batzuk:

Goia'tar Flabio: Itxas-gizon euskalduna zan eta brujulea aldatu eban, bost zokodun kutxa ezarrita. Eta brujula izena be boxola'tik ei dator, bost zokoak gogoratuz.

Nabarro'tar Pedro: Polborea gudarako egokitu eban.

Araba'ko Diego: Gasteiz'tarra, 1550n. urtean, matematikak kañoetara ezarri ebazan.

Garai'ko Blasko: Bizkai'koa, ur irakiñaz itxas-ontzia erabilten ikasi eban eta Bartzelona'n 200 tone'ko ontzia orduko 6 km'an eroan eban (1543).

Itziar'ko Juan: II Felipe'ren irakaslea izan zan eta idazkera eder edo kaligrafia'ren arauak asmau ebazan, gaur be Itziar izkia izena daroana. Durangoarra zan (1540).

Urdaneta: Lenengo lur-irudigillea, Mexiko'ko itxas-errekak eta aizeak aztertu ebazan.

Juan de la Kosa: Ameriketako lenengo lur-irudia egin eban eta Kolon'en en 1º pilotoa izan zan (1492). Bizkai-koa zan.

Gaztañeza'tar Antonio: Motriko'ko almirantea zan eta lur-irudi biribillak asmau ebazan 1692n. urtean eta itxas-ontziak egiten onena zan.

Munibe'tar Erramon: Bergara'n 1771n. urtean, platino garbia lortu ebana lenengoz.

Eluyar'tar Fausto: Bergara'n irakasle izan zan eta 1771 urtean wolfran'a egin eban.

Quadra'tar Erramon: Werner sistema asmau eban eta 1803n. urtean metalen taulak argitaratu.

# NON DAGO MATRICI? (I)

Ori itaunori entzunkeran, erantzuna beingoan etorriko jaku burura: Zamudion, gizona, Zamudion! Eta bai, alan-txe da, bada, Zamudion.

Izango dira amairu urte edo, oraindikarren gogoan dodan Joan Aburto Ormaetxegaz, MATRICIko jagolea izanekoagaz, egon nintzan berbetan beinola eta, alango baten, esan neutson, “txo, Joan, jakingo dozak amen, MATRICI dagoan inguruan, egozan baserrien izenak? Zeintzuk izan zoazan?”

Joanek erantzun, “jakingo ez joazat ba, entzun eik ondo: **Beaskoetze, Sendikune, Andkoetzebarri, Talleri, Montorre** eta **Errotatxu**”. Alan bada, entzundako sei baserrien izenak papertxu baten idatzi eta gorde egin neban.

Leengo aldian, baina, lekuz aldatu bear nebala eta, ara a papertxua non agertu jatan. Amairu urte garrenean, gero! Paperean dakarrenari buruan erabili ostean, orren ganean zeozer idaztea ebatzi neban.

Nongo lurretan dago MATRICI eginda? Nortzuk izan ziran lurren jaubeak? Zeintzuk izan ziran euron izenak? Ori guztiori buruan neukala, MATRICIren jaubego pape-retan sartu neban musturra eta andik eta ortik urrengoan irakurriko dozuna lortu neban: lursailen zatirik andiena **Mustrikauri** (lantokia eta bulegoak) izeneko etxekoa zan eta José María Bergara Urbanori erosi jakon, beste lursaila bat **Telleria** etxekoa izan zan eta gizon berberari erosi jakon, beste zati bat (ONAPRES ondoko apartakalekua), eta ez txikerra, **Beazkoetxea** izeneko etxekoa izan zan eta María Teresa Murga Mugartegiren senitartekoai erosi jaken, eta, azkenik, geroago MATRIPLAST egingo zan lekuko lurra **Loagabekoa** etxekoak izan ziran eta leengo Murga-tarrai erosi jakezan.

Ikerketea baina ez zan naikoa, geiago jakin gura neban. Asi nintzan bada beste iturri batzuetara jotzen. Esate baterako, Bizkaiko XVIII. gizaldiko foreazinoetan au idoro neban: (j: jaubea; e: errentadorea).

## 1704. URTEAN

ZAMUDION:

“**Mustricauri de arriba**” j: Antonio Miguel Zaldu Ugarte / e: Lucas Zaballa  
 “**Mustricauri de Jauregui**” j: Antonio Miguel Zaldu Ugarte / e: Lucas Zaballa, Francisco Zuazo  
 “**Mustricauri Hormaechena**” j: Domingo Zuazo  
 “**Tellería**” j: Domingo Larragoiti / e: Joan Hormaecha  
 “**Herrotachúa**” j: Domingo Larragoiti / e: Miguel Goicoechea

DERION:

“**Mustricauri**” j: Pedro Goicoeche Bolumburu / e: Pedro Landeta

## 1745 URTEAN

ZAMUDION:

“**Udaldeguren**” auzoan:

“**Mustricauri**” j: María Lisa / e: Cosme Echebarria  
 “**Beazcoechea**” j: María Lisa / e: Antonio Elorriaga, Lorenzo Elorriaga  
 “**Mustricaurichu**” j: Joseph Zubieta  
 “**Thejería**” j: María Antonia Goitia / e: Pedro Zuazua  
 “**Errotachúa**” j: Joan Joseph Larragoiti / e: Bentura Rotalde

DERION:

**Mungia**ko uriagaz auzotartuta:

“**Loaga becoa**” j: Agustín Ugarte / e: Josepha Arechalde



“Loaga goicoa”	j: Agustín Ugarte / e: Joan Goicoechea
“Loaga erdikoa”	j: Joseph Elordui / e: Joan Bautista Galbarriartu
“Elezcarrizaga”	j: Nicolás Jaureguibeitia / e: Pedro Elorriaga

**1796N. ETA 1798N. URTEETAN**

## ZAMUDION:

“Mustricari”	j: Joseph Murga (vecino de Bilbao)
“Beascoechea”	j: Joseph Murga (vecino de Bilbao)
“Sindicoena”	j: Joan Zuazua
“Rotachu”	j: Joan Fermín Larrigoiti

## DERION:

“Tellería”	j: Joseph Murga (vecino de Bilbao)
------------	------------------------------------

## Mungiaiko uriagaz auzotartuta:

“Loaga de medio”	j: Joan Joseph Elordui
“Loaga becoa”	j: Joseph Murga (vecino de Bilbao)
“Loaga goicoa”	j: Joseph Murga (vecino de Bilbao)
“Eskerrizaga”	j: Joan Antonio Jaureguibeitia / e: Jose Loroño

Alan bada, urrengoan, etxerik etxe aztertuko doguz sei etxeok, egin dogun ikerketa apal onek elduten itzi deuskun lekugino, atan be.

**MUSTRIKAURI**

MATRICIko lurrik geienak etxe onetakoak izan ziran. Aurrerantzean, **Mustrika** izena artu dogu izen normalizatutzat, baserri au **Andikoetxea** izenagaz be ezagutua izan bada.

Leenago ikusi dogunez, izen bereko lau etxe egon ziran 1704an, 1745ean bi eta 1796an bat baino ez.

Au azkenau izango da gure sasoirra arte zutunik elduko zana.

Konturatuko gara be, Joseph Murga Bilbon bizi izandako jauna zana aren jaubea. Arena ez eze, beste etxe batzuen be bazan, bera andikia zala adierazoten deuskula orrek.

Alan jakin ez arren be, seguru antzean, bertan errentarorea biziko zan eta arek aldiroan-aldiroan errentea ordaindu bearko eutson Murga jaunari.

1864ko etxe orretako jaubego paperetan ikusten da Manuel María Murga zala bertako jaubea, 1852. urtean il zan arte.

Agiri orreetan ez da agertuten, baina, zenbat solo eta baso eukazan **Mustrika** etxeak, eztak, jakina, zeintzuk izan ziran areen izenak be: Manuel María Murgaren semea zan José María Murga Mugartegi, Bizkaiko Foru Aldun Nagusia eta Xemeingo semea izan zana, izan zan urrengo jaubea 1852. urtetik 1876. urtean il arte.

Urte bete geroaga, 1877an, Joaquina Murga Mugartegi, aren Bilboko arrebeak artu eban etxaguntzea, arik eta 1929an il zan arte.

Seme-alabarik ez eukanez, beraren lobeia zan Ramón Murga arana jaunari itzi eutson etxaldea, markinarra zan



1964. sortu zan urtean.

au. Beray, baina, 1942. urtean il zan eta Madrilen bizi eban arrebeari, María Murga Arana, itzi eutson baserria.

María Zamudiotik asago bizi zala edo, etxaldea Gabriel Aretxabaleta Atxutegi Zamudioko baserriarari saldu eutson 1944. urtean.

Onek, baina, urrengo urtean, 1945ean saldu eutson dana Bilboko José María Bergara Urbano jaunari.

Eta onek, azkenean, MATRICIri saldu eutsozan lurak 1965etik 1978ra bitartean.

Ikusi dogunez, gitxienez 1796 urtetik 1944 urtera arte **Mustrika** izeneko etxaldea Murga familiaren eskuetan egon da, orreetariko jaube bat be an bizi izan ez dala. Orra or, bada arrazoi jaubeok landu bakoien lurren izenak denporearen joanean galduteko.

Leen aitatu dogun lez, **Mustrika** izena aukeratu dogu izen normalizatutzat. Izan be, jaubego paperetan “**Mustrika**” (1852tik 1978ra) eta “**Mostrica-jauregui**” (1919an) agertuten da. Eta orreetariko baten, **Andikoetxea** (“**Andicoechea**”-1877an, “**Andicoeche**”-1965ean) izena be esaten jakola dakar.

Asikera ikusi dogun lez, bertakoak **Andioetxeberri** (Joan Aburtok) esaten deutsoe.

Fogerazinoetan, barriz, **“Mustricauri de Jauregui”** 1704an, **“Mustricauri”** 1745ean eta 1796an agertuten da.

Lurrak sarritan etxearen inguruan egoten ziran, perimetro baten barruan.

1852n. urtean **Mustrikauri** etxaldeak eukazan lurrak **Beaskoetxea** etxeokaz batera perimetro baten barruan egozan eta oneexek ziran aren mugak: **I:** Ignacio Aurrekoetxea eta Isidro Elgezabalen soloak, **Errotatxu** (**“Rotachu”**) baserriko lurrak, **Kuribilondo** (1965ean) edo **Asua** errekea eta **Aresti** baserriko lurrak **-So** eta **E:** **Sinidikoena** (**“Zendicoena”**) baserriko lurrak, burdibide bat, **Arestikolanda** (**“Campa de Aresti”**) zelaia, **Errotatxu** baserriko lurrak, **Telleria** (**“Tejería”**) baserriko lurrak, **Lekundiz** (**“Lescundiz”**) baserriko lurrak eta **Kuribilondo** edo **Asua** errekea - **Sa:** **Loagatorre** (**“Lobaga-torre”**) baserriko lurrak.

1876. urteko agiri batzuetan **Mustrikauri** edo **Andikoetxea** (**“Mustricauri”** o llamado también **“Andicoetxea”**) izenak etxe berberentzako ikusten dira, **Aranoltza** (**“Aranolza”**) auzoan, izena agertuten da, jaubea Manuel Murga eta errentadorea Domingo Aurrekoetxea zirala.

Alan bada, 1910eko Landa Katastroan au dogu:

**Mustrikauri** (**“Mostricauri”**), **Aranoltza** (**“Arenolza”**) auzoan, jaubea Joaquina Murga Mugartegi, lurren izenik ez dau agertuten.

1936ko Baserrien Estadistikan:

**Mustrikauri** (**“Mostricauri”**), **San Antolin** auzoan, jaubea Ramón Murga Arana, errentadorea Marin Aurrekoetxea Bidaurrazaga.

1937ko Basoen Autorpenean:

**Andikoetxea** (**“Andicoetxe”**) izena dakar bertako biztanleak Ignacio Bilbao eta Martin Aurrekoetxea zirala.

1938ko Basoen Autorpenean:

**Mustrikauri** (**“Mostricauri”**) izena dakar bertako jaubea Ramón Murga Arana zala.

1944. urtean **Mustrikauri** eta **Beaskoetxea** etxaldeak bakotxa nebarreba banak artu ostean, urrengo mugak egin ziran **Mustrikauri** baserriarentzako: **I:** **Beaskoetxea** (**“Beascoetxea”**) baserriko lurrak **-So:** **Errotatxiki** (**“Errota-chiqui”**) (Ramón Mota) eta **Telleria** (**“Tejería”**) (Bernardo Aurrekoetxea) baserriko lurrak **-Sa:** **Aresti** (**“Aristi-oeste”**) (José González Arpón) baserriko eta José María Murga Aranaren lurrak **-E:** José María Murga Arana eta Bernardino Aurrekoetxearen lurrak.

1946. urteko Baso Autorpenean:

**Andikoetxea** (**“Andicoetxe”**) izena agertuten da, jaubea José María Bergara Urbano zala.

## BEAZKOETXEA

Guretariko beargin askok ezagutu dogu baserri au. Bera eratsi baino leenago MATRICI aurrez-aurre egoan, sartukera nagusiaren aurrean eskoatara egon be.

1745eko fogerazinoetan agertu zan leenengoz **Beaskoetxea** (**“Beascoetxea”**) izena, 1704ko fogerazinoetan, ostera, **“Mustricauri de arriba”** izenagaz agertu zan arren. 1796-1798ko fogerazinoetan (**“Beascoetxea”**) Joseph Murga jauna, Bilbon bizi zana, aren jaubea zala dakar.

Bertan errentarorea biziko zan eta arek aldiroan-

aldiroan errentea ordaindu bearko eutson Murga jaunari.

Asikera aitatu dogun lez, agoz **Beaskoetxe** (Joan Aburtok) esaten jakola etxe orreri. **Beaskoetxea** aukeratu dogu idazteko erea, izen normalizatutzat. Izan be, jaubego paperetan **“Beascoetxea”** (1852tik 1992ra) agertuten da eta.

**Mustrikauri** eta **Beaskoetxea** baserri bi izan arren be, bitzuak izan ziran jaube batenak, eta goian **Mustrikauri**ren ganean esandakoak emen **Beaskoetxea** baserriarentzako be 1942 urtera arte balio dau.

Orduan, jaubea Ramón Murga Arana izan zan, baina berau 1942. urtean il zan ezkeri, Xemeingo José María Murga Arana aren anaiaren eskuetan lotu zan baserria.

Onek alabeari, Markinako Maria Teresa Murga Mugartegi, itzi eutson etxaldea 1968. urtean.

Maria Teresa orrez ez eban euki seme-alabarik eta zaar zala, Manuel Murga Mugartegi nebeari zein loba guztiai itzi eutsen etxaldea 1977an. Orreek **Beaskoetxea** baserria MATRICIri (%10) eta LANKIDE AURREZKI KUTXARI (%90) saldu eutseen 1982an.

Ikusi dogunez, gitxienez, 1796 urtetik 1982 urtera arte **Beaskoetxea** baserria Murga familiaren eskuetan egon da, orretariko jaube bat be an bizi izan ez dala. Orra or, leengoaren antzera, bada, arrazoa jaubeok landu bakoen lurren izenak denporearen joanean galduteko.

1876. urteko agiri batzuetan **Beaskoetxea** (**“Beascoetxea-gaspar”**) izena etxe berberentzako ikusten da, **Ugaldeguren** (**“Ugaldeguren”**) auzoan, jaubea José María Murga zala.

1891eko eta 1892ko Baserriarren Erroldan **Beaskoetxea** (**“Beascoetxea”**, **“Beascoetxe”**), **Ugaldeguren** (**“Ugaldeguren”**) auzoan, izena agertuten da, jaubea Manuel Murga eta errentadoreak Eulogio Aurrekoetxea eta Celestina Gorostiola zirala.

Alan bada, 1910eko Landa Katastroan au dogu:

**Beaskoetxea** (**“Beascoetxea”**), **Aranoltza** (**“Arenolza”**) auzoan, jaubea Jose María Murga Mugartegi, lurren izenik ez dau agertuten, beresi batena izan ezik: **Lukundizalde** (**“Lescundi-alde”**).

1936ko Baserrien Estadistikan:

**Beaskoetxea** (**“Beascoetxea”**), **San Antolin** auzoan, jaubea Ramón Murga Arana, errentadoreak Saturnino Elorriaga Etxebarria eta Lorenzo Etxezarreta Gorostiola.

1937ko Basoen Autorpenean:

**Beaskoetxea** (**“Beascoetxea”**), izena dakar bertako biztanlea Lorenzo Etxezarreta zala.

1940ko Baserriarren Erroldan:

**Beaskoetxea** (**“Beascoetxea”**), izena dakar, errentadoreak Saturnino Elorriaga Etxebarria eta Lorenzo Etxezarreta Gorostiola zirala.

1944. urtean **Mustrikauri** eta **Beaskoetxea** etxaldeak bakotxa neba-arreba banak artu ostean, urrengo mugak egin ziran **Beaskoetxea** baserriarentzako: **I:** erribidea **-So:** **Telleria** (**“Tejería”**) (Bernardo Aurrekoetxea) eta **Errotatxiki** (**“Errota-chiqui”**) (Ramón Mota) baserriko lurrak **-Sa:** **Aresti** (**“Aresti”**) (Zollo Larraskitu), **Aresti** (**“Aristi-oeste”**) (José Angel Arpón) eta **Ezkerrizaga-bekoa** (**“Escarza”**) (Juan Bolunburu) baserriko lurrak - **E:** **Mustrikauri** (**“Mostricauri”**) baserriko lurrak.

# MARGOLARITZA

Edertiaren edestia idatzi dogu,naikoa labur,baiña gaia zabalegia izan dalako gauza asko eta asko ezin agertu izan dira.

Orain asten dogun lan-zerrenda onetan margolarien edo pintoreen edestia agertuko dogu.

Margo izen au kolorea adierazteko oraintsu sartu da Euskalerrira, Azke'ren iztegian ikusten dan lez,baiña bearezko itza da eta izan daitela ondo etorria.

Zer da ba, margolaritza?

Irudiak egiteko bidea da baiña ez arrian, beste era batera baiño.

Margo-lanak egiteko ura margotu lei eta ur margotua-gaz ola edo ormea eta orreri esango dautsagu akuarela eta ur-margo-lana.

Edo orioa margotu lei,eta orreri esango dautsagu oleo-margoa

Edo orma baten gaiñean estukoa edo zerbait biguna zabaltzen ba'dogu eta ori margotu,orreri umel-margoa esango dautsagu,erderazko "fresko".

Edo buztin-lana margoz apaintzen ba'dogu orreri apai-garria edo dekoratibo esango dautsagu.

Baiña buztin-zati txikiak artu eta bakoitxari margo bat ezarri eta zatitxu orreikaz margodun irudia egiten ba'dogu, "opus musivum" edo mosaikoa izango da.

Eta,azkenez,margodun ariak bear dan lez alkartuta euna josten ba'dogu,ori margodun euna edo "tapiz" izango da.

Dana labur agertzeko,margolaritza margoak bide dirala,norberaren trebetasuna agertzeko bidea da.

## ARTZULOETAN

Margolarien eder-langintza oso antxiñakoa dogu.

Arrizar edo paleolitiko aldiaren gure aurretiko Kromagnon gizona otzaren aurka babesaren aurkitzeko kobetan bizi zan gizaldi luzeetan, margolari trebe agertzen da, naiz Santimamiñe'n naiz Altamira'n naiz beste toki askotan.

Gerotxuago, eta ez ain asko,sortaldeko margolaritza sortu zan, au be aizpeetan, artzuloetan.

Baiña alde aundia dago margolaritza-era bi onein artean:

Ipparaldekoan ez da ia inoz gizakirik agertzen,erti geldia da,eta sortaldekoan, osteraz asko agertzen dira gizakiak eta beti ibiltzen,eizan esaterako. Gaiñera iparraldekoa gauzatzia edo realista da eta sortaldekoa eskematikua.

Irudi oneik artzuloko bazterretan, sakonean agertzen dira eta orretarako zioa, magia edo sorginkeria ei zan.Or piztia zauritu ezker, kanpoan errez arrapatuko da, orre-gaitik arrak baiño ez dira agertzen zaurituta, urritu ez daitezan.

Ez dakigu ziur zelako margoa erabilten eben,baiña bai gaurkoak baiño iraunkorragoa zala. Arraiñen gorputzeko uragaz-edo, antza.

## ARRI BARRI ETA ERRI ZARRAK

Arribarri edo neolitiko aldiaren ez da agertu margo-lanik, esmalteak eta estuko margotuak zerbait kelten denporetan

Ejipto'n: Ejiptoarrak onak ziran arrizko irudiak egiten baiña margotzen lan gitxi egin eben, apaingarriak baiño ez.

Illobiak dira lurralde ta sasoi aretako ederti-lekuak eta or agertzen dira apaingarri lez dantzak, lurgintza-lanak, erelejiño-gaiak(illen liburuan esaterako) illaren argazkiak illarri-gaiñean...

Mesopotamia'n: Buztin margotua eta ebagiak eginda agertzen da asko, K.a.VIII gizaldian,esaterako edontziaren gaiñean auntsa.

Persia'n: Buztin leiartua baiño ez.

Asia txikia'n: Ititak margo-lanik ez dauke baiña reliebe ederrak asko.

Lur-arte itxaso-inguruan: Inguru onetan erri asko bizi izan dira.

Feniziarrek gauza askotan ziran trebeak,itxas-ontzigin-tzan, dirua irarten eta,batez be idazten,baiña ez dauke ez-lako margo-lanik.

Israel erriak irudiak egitea galazota eukan.

Kreta'tarrak eta mizeniko erti-zaleak batez be freskoak edo orma bigunetan margazkiak egiten ebezan ugari eta or agertzen dabezan irudiak landarak, piztiak eta onein artean izurdeak (delfin) dira, kirolak be bai eta erlejiño-giroko ibilbideak be bai.

Estukoan margo-lanak egiten be onak dira ,oletan eta marmoletan edo artzurietan be bai, baiña buztin-lanetan edo zeramikan dira nagusi, batez be landarak eta piztiak agertzen dira.

Akeo'tarrak dira urrengoak,grekoan aurrekoak, eta ez dauke margo-lanik baiña bai buztin-lanak, oneitan maixu dira.

**Olazar'tar Martin'ek**

# LIBURU ARRIGARRI BAT ETA BATUA

Ez liburu eta ez liburuaren idazlea ez dira aitzuta egon diranak. Ezagunak dira gaur be, baiña aldi baten oso ezagunagoak izan ziran.

Liburuaren idazleak amets arrigarri bat agertzen dau: Mundu guztiko izkuntza bat eta guztiak ulertuko dabon bat sortzea.

Uste izango dabe irakurleak esperanto dala izkuntza ori, baiña ez, ez da esperanto.

Idazleak izkuntza bat nai dau, beste guztien oiñarria dana, eta ori, bere ustez, ebraiera da. Barri oneik ik.RIEV'EN, 7, 423: Joakin Azpiazu).



Luis Thomassin da idazlea (1619-1695): Felipe Neri'ren oratoritarra eta eleizearen edestiari buruz idazten ugaria ta ona.

Liburuaren idazpuruak argi agertzen dau zein dan elburua. Ale bi dauz liburuak, lenengoan iztegi guztiak batzen dira ebraierearen iztegiagaz eta bigarrean bere bideak agertzen dauz: Izkuntza guztiak ebraieratik datoz eta Noe'ren ondorengoak zabaldu eben mundu osora ebraiera.

Izkuntzen artean bat euskerea da eta ez dau luze aztertzen gure izkuntza, bost orrialde guztiz, eta alegin osoa egiten dau ebraiereak eta euskereak dabezan antzeko itzak agertzen eta gure erdi-ugaratean ebraieraz berba egin zala eta ortik sortu zala euskerea diño.



Thomassin'ek ez daki euskerarik, baiña ekarri daiguzan berak aitatzen dauzan gure itzak eta berak dakazen lez: deabruach, cerua, gorputza, cubac. Eta oneik ebraieratik zelan datozen aztertzen dau.

Beste leku baten latineko "oculus" aztertzen dau eta euskerazko "begi" ebraierako "ajin"etik datorrela diño.



Bere ustez, berba orreik eta beste asko iberoen arteko izkuntzatik datoz, erromatarrak ona etorri baiño lenagotik, kantabroen artekoa dan euskerea be bai eta guztiak datoz orduan emen berba egiten zan ebraieratik, euskerea be bai.

Iberia onetan egoan bibliak aitatzen dauan Tarsis eta inguruan egozan zeltak, jatorriz ebraiera zan izkuntza euken eta fenizioak ona etorri ziranean, emengo ebraierak indar barria artu eban, onein izkuntza antzekoa zala-ko.



Euskerea ebraieratik datorrela ziurtatzeko, askotariko aldakuntzak egiten dauz eta errez onartu be bai: "Aita", ebraieratik zarrak esaten eutsen "atta" da; "ama" ebraiera-ko "am"; "alaba" ebraierako "bat"/ alabea, "besoa" ebraierako "zroa"/brazo, "zaar" ebraierazko "zaken", "bertan", arin, ebraierazko "pata" "cergauti" ebraierazko "care".

Argi agiri da gure izkuntza ez dala aztertzen.



Gizon jakituna zan, baiña arlo onetan okerreko bidea artu eban.

Ara zer diñon Feller izkuntzalariak: "Ezin esan geinke jakituna ez danik, baiña iturrietara jo-bearrean, jatorrizko idazkiak beragandu baiño ez dau egin".

**OLAZAR'tar Martin'ek**

## NASTEAN

### IKASLE EUSKALDUNAK SALAMANKA'N

Ikastetxe Nagusi guztiak eta beti izan dabe ardurea ikasleak nondik etorten diran jakiteko eta orrelan toki bakoitzetik etozanakaz alkarteak sortzeko.

Salamanka'n, bear ba'da X Alfonso erregearen sasoiaren asita, 1411n. urtekoak dira lenengo agiriak, bagegozan lurraldez egindako alkarteak eta euren ordezkioak osotzen eben "Universitas".

Erri-ugarte osotik lau talde sortu

ziran aberriak kontuan dirala. Lenengo aberria Bizkaia zan eta onen lenengo ordezkioa Ipenarrieta'tar Mikel, iruñatarra... Orduan naparrak euskaldun lez artzen ziran.

Salamanka'ko euskaldunak, ez ziran asko baiña bai biziak eta arreak eta Salamanka'ko Ikastetxe Nagusian aberriak ospetsuena ziran. Esaterako, 1646n. urtean ikasle batzuk kanporatu egin ebezan eta euretatik lau ziran bizkaitarrak eta ain naste aundia sortu ebelako Araba'ko Batzar Nagusiak sartu ziran arazora (1635) eta eztabaida aundia izan eben Bernardo Hurta-

do de Mendoza zaintzeko Salamanka'ko ikastegi-epaileak eta Araba'ko Los Huertos erriko alkate ta epaileak.

Albiste asko dagoz euskaldun onei eta beste askori buruz.

Askotara diran Salamanka'n erretorre izandakoen abizen euskaldunak, baiña banaka azertu bearko litzakez. Ori gure euskal jakintza argitzeko lan ona litzake.

Batez be jakingarria litzake Garcia de Salazar baten bizitza.

**OLAZAR'tar Martin'ek**

# SALMOAK

## SALMOAK 33<sup>a</sup>. BEREN BIZITZA NAZARETEN

Aitak nai zuan Jesus oneri  
Nazaretarra deitzea,  
Berarem aintzan lana egiñaz  
Nazareten bizitzea.  
Billatu zuen andretxo arek  
ondo zaitua etxea,  
eskerrak eman zizken Jaunari,  
an zeuken Jesus gaztea.

Ama Birjinak Jesusekin bat  
otoitz egiten zuana,  
eta etxeko lanak egiñaz  
jarri berentzako jana.  
Jose santuak oso gustora  
egiten arotzen lana,  
Jainko- semeak ta bere Amak  
izateko bear zana.

Ezjakina naiz misteriozko  
bizitza au esateko:  
Jaunak nai zuan Ama Birjiñak  
merituk irabazteko,  
ta jakin zezan lege berria  
besteai erakusteko.  
Jesus serio jarri zitzaion  
ta illun ezagutzeko.

Ama Birjiñak umiltasunez  
au da esaten zuana:  
“Ez det erantzun egiteakin  
nere errua da dan.  
Autsa naiz eta ez det merezi  
lurrak ematea jana,  
eskerrak, Jauna, ta egin bedi  
nerekin nai dezuana.

Aingeruari eskatu zien:  
“Esan neri barkatzeko,  
nere biotza urtu ez dedin

gauza nadin maitatzeko”.  
Erantsun zien: “Andre Erregin  
Jauna dezu laguntzeko,  
biotz umillai begira dago,  
poztu miñak ez galtzeko”.  
Jaunak etzion kaso egiten  
Birjinari samiñetan,  
baiñan beraren egiteakin  
alaitutzen zan benetan.  
Birjiña miñez eta negarrez  
zana egun askoetan.  
Jaunak ondoren grazi-bizitza  
jarri zuan goienean.

Ondorenean Birjiñak esan  
zion Jesusi benetan:  
“Barka eidazu uts egin badet  
nere egin bearretan”.  
Erantzun zion: “Ama nerea,  
ipintzen nazu pozetan;

Aitaren naian jarriko zaitut  
Lege Berriko gauzetan”.

Ama Birjiñak bere ordutan  
beti egin zuan lana:  
jana ipiñi, Jose serbitu,  
ondo jarri bear zana.  
Birjiñak Jesus biraltzen zuan  
aita ordekuangana,  
laguntzen zion arotz-lanetan,  
Jose poztutzen zan dana.

## SALMOAK 34<sup>a</sup>. JESUS AURRA GALDUA

Ama Birjiña eta San Jose  
Jesus Aurtxo artuta,  
urtero juaten ziran tenplora

*Salmo berriak kantatzeko Doinua!*

(1) San Juan

Jaun-goi-ko Ai-ta mai-te zai-  
tu-gu ze-ru lu-rren E-gi-lle-a Jain-ko  
se-me-a, mai-te zai-tu-gu guz-ti-  
on Sa-bai-tai-lle-a Jaun Es-pi-ri-tu San-tu-a  
ze-ra a-lai-ta-sun e-mai-lle-a gu-re  
a-ni-man Se-na-rra ze-ra po-za  
sor-tzen lan-gi-lle-a

legeak obligatuta.  
Gizasemeak bakarrik zeuden  
“Juan zaitezte” aginduta;  
Jose santua alai juaten zan  
Ama-semek lagunduta.

Jesusek oiñez juatea nai zun  
Jainko aita serbitzeko,  
mutil koxkorra zan bezalaxe  
nekaturik jarraitzeko.  
Eskutik eldu ta artzen zuen  
nekea zerbait kentzeko,  
Birjiña belauniko jartzen zan  
arpegia garbitzeko.

Jesus Jainkoak amabi urte  
beteak zituanean,  
igo ziraden Jerusalem  
oitura zuen antzean.  
Pazkoa jaiak ospatzen ziran  
Tenplon zazpi egunean,  
egun auetan jartzen zituan  
Jaunak ditza aundiñean.

Jesus erten zan Jerusalem  
bere amaren onduan.  
Aurrak Amari pentsatze onak  
jarri zizkion buruan;  
eta agertu zan bakarrikan  
andik geroxeaguan,  
“Joserengana jua gozan Jesus”  
pentsatu zuan orduan.

Galdetu zien berentarrari  
Jesus ikusi al zuen.  
Erantzun zien danak esanaz  
nola ikusi etzuen.  
Biurtu ziran Jerusalem  
arnas artuko bazuen.  
Irabazteko merezimentuk  
mingarri auk zituen.

Jerusalenen gelditua zan  
Jesus iru egunean,  
eskean biltzen zuana janez  
pobrearekin batean.  
Gaixo batzuek sendatu zitun  
aitaren borondatean,  
Ondorenean Eleiza jua zan  
aundien junta zanean.

Bildu ziraden jakintsu eta  
maixuak dudak kentzeko,  
etorri ziran beren oituran  
Eskriturak berritzeko.  
Disputan zeuden Kristo jaio zan  
edo zuen etortzeko.  
Danen erdira Jesus sartu zan  
gogoz zeuden entzuteko.

Lenengo etorrerak onela  
au da esaten duana:  
“Indartsu Errege izango da”  
degu Dabidek esana.  
Au ezin leike onela esan  
Errege gorputzez zana,  
baizik Errege espirituan  
Eleizan biziko dana.

## **SALMOAK 35<sup>a</sup>. JESUS AURRA AGERTUA**

Jainko-erria Erroman mende  
indarrak kendutakoa,  
etorri ez dan señaile ez da,  
baizik etorritakoa.  
Aita Jakobek señaile  
auxe zeukan ezagutzekoa:  
“Mesias etortzean Israel  
izango da mendekoa”.

Beste arrazoi geiago ere  
Jesusek esan zituan,  
eskribak eta letradun aiek  
iñork itzikan etzuan.  
Arriturik alkarri begira  
galdetzen zuen orduan:  
“Nundikan dator Aur au? ta iñork  
an ezagutu etzuan.

Ama Birjiña pozez bete zan  
Semea an ikustean,  
jakintsuari esan zizkien  
azken itzak entzutean.  
Esana zion: “Seme, zergatik  
utzi gaituzu batean?”  
Aita eta ni billa gebiltzan  
samintasunez betean.

Erantzun zien: “Zergatik nere  
billa zebiltzaten ala?  
Etzekizuen Aitaren gauzak  
zaitzea komeni zala?”  
Birjiñak ere misterio au  
entenditu etzuala,  
biurtu ziran Nazaretera  
Jesus bertan zijuala.

Jerusalendik erten ondore  
bakarrik zeuden orduan,  
Birjiñak belauniko jarrita  
Jesus adoratu zuan.  
Eskatu zion barkatutzek  
gaizki serbitu bazuan.  
Jesusek ama zezuko pozez  
alaitu zuan munduan.

Birjiñak esan zion Jesusi  
deskontsatuaz jateko,  
kanpon eseri ta eman zion  
Amak jana bizitzeko.  
Anima asko jarri zituan  
sendaturik salbatzeko.  
Amari esan zizkan gauz asko  
biotzean gordetzeko.

Biurtu ziran Nazareteko  
berena zuen etxera,  
Lukas santuak dion bezela  
Jesus mende bizitzera.  
ama Birjiñak gertatu auk  
biotzean ausnartzera.  
Jesus zijuan grazian eta  
edadean azitzera.

Jesus ta Ama Birjiña zeuden  
Jose santuan mendean,  
fameli aren buru zalako  
Jaunaren gogo onean.  
Iurak otoitz egiten zuen  
eta jarraitu lanean,  
Semeak Ama ipiñi zuan  
jakinduri aundian.

**JUSTINE ALDALUR  
(Lekaime Klaratarra)  
(Gasteiz)**

## 16.– SIMON BOLIBAR

Simon Bolibar ez da euskalerrian jaioa, krioilloa edo euskaldunen eta bertakoen semea baiño. Dana dala, zerrenda onetara dakargu euskaldunak an izan eben jokabidearen eredia dalako. Euskaldunak beti edo geienetan jokatu eben euren izkuntzak eta euren sorterriak alkartuta eta ango inditarrak lagundu eta azken baten askatasun osoa lortzeko. Beste batzuk ez eben nai ori, ango aberastasunak batu eta inditarrak menpean eukitea baiño. Azkenean ango erri guztiak, Bolibar'en bidetik, askatasun osora eldu ziran 1898n. urtean Kuba askatu zanean.

Simon Bolibar 1783n. urtean jaio zan Karakas'en, baiña bere aurretikoak euskaldun-euskaldunak ziran, Zior-tza'n egoan Bolibar errian bizi ziranak. Bolibar zarra erri onetatik joan zan Indietara 1587n. urtean. Bere aitita zan Bolibar zarra beste euskaldun eta gali-ziar batzukaz ara joan zana. Laster lortu eban iñoz galduko ez eban duintasuna sendi onek. Eta duintasun orrek egingo dau gizaldiak geroago ospetsu gure Simon askatzaillea. Sendi au aberastu be egin zan eta euskaldun asko artu ebazan lankide lez: Juan Bernardo Arastegieta'ren sendiko abade batek bateatu eban Simon eta abar.

Kriolloen semea zan Bolibar onen biotzean euskal-ikutu bat ba-dago, baiña ez larregi begiratu zertzelada ori. Galtzen joaten dan gauzea zan. Dana dala, Karakas'en beti izan dira indartsuak euskaldunak, euren esku izan dabe eginpidea.

Umea zala umezurtz geratu zan osaben eta zaintzailleen ardurapean. Bere irakasleen artean dago Migel Jose Sanz. Onk beronen ikasleagaz batera 1811n. urtean Kongresu'ko idazkari zala, askatasun osoari emon eutson autarkia.

1799n. urtean Bolibar gaztea España'ra etorri zan eta bidean Uriarte ta Borja'tar Jose'ren lagun egin zan. Bilbao eta Madrid ikertu ebazan. Madrid'en Ustaiz'ko markesak artu eban etxean. Amerikarra zan au be eta askatasun osoaren alde jokatu eban. Onen bideai jarraituz, Madrid'en jakintsuenakaz artu-emonak izan ebazan eta onen bidez aurkitu eban emaztea Bilbao'n: Joakina Rodriguez del Toro y

Alayza. 1802n. urtean ezkondu eta Ameriketara biurtu ziran.

Beingoan amaitu zan Bolibar'en zoriona: 1803. urtean il zan emaztea Karakas'en, sukarrak eraginda. Oso biozkatuta geratu zan Simon eta Europa'ra biurtu zan pozaren billa. Tamalez urreratu zan Paris'en Napoleon Enperadore izendatzera, baiña artu emonak izan ebazan ango gizaundiakaz. Bere burua poztu naiez, atsegiñaren billa asi zan, diru asko txautu eban, eiztaritzan ekin eban, baiña aspertuta bizi zan, ez eban ezerk beteten bere biotza. Umbolt be ezagutu eban eta onegaz batera etorren Ameriketako errialdeak askatasunean bizitzeko giroan dagozala uste izatean. Burutasun orregaz berotuta Erroma'ra joan zan eta an egin eban Mendi Santuko ziña: azkenera arte Amerika'ren askatasunaren alde borrokatze ko ziña.

Mundu barria biurtu zanean, Laterri Batuak ikertu ebazan eta ango bizitasunak sutu egin eban.

Barriro daukagu Benezuela'n 1809n. urtean "Justicia Mayor"en ardu-reagaz. 1810n. urtean Londres'era joan zan laguntza-eske baiña ez eban ezer lortu.

Caracas'era biurtu zanean, lur-ikara aundi bat izan an eta batzuk ori zigorra zala esan eben, askatasuna eskatzen zalako. Berak onek aurean erabilli ebazan izkilluz. Ona emen bere lenengo gogorkeria! Zaurituai laguntzen be ibilli zan.

1812n. urtean errege-zaleen aurka matxinada bat izan zan eta Bolibar salatu eben etoi lez. Frantzisko Iturbe kriollo euskaldunak atera eban arriskutik.

Brasil'era ta Kolonbia'ra joan zan erbestertuta eta emen artu eban ekin-tzara sartzeko erabagia: Izkillidun lagunak artzen dauz eta Rafael Urdaneta

ezagutzen dau. Au izango zan gudalburu eriotzara arte.

Asi da Bolibar'en aintzazko bidea; eta garaille sartzen da Benezuela'ra. Gudadiak asko ugaritu jakozan. 1813n. urtean sartu zan Karakas'era garaille eta erri guztiaren txalo artean. Askatzaillearen izena ezarri eutsoen eta berak erriaren aginpidea aldeztu eban diktadura guztien aurka. 1815n. urtean joan zan Jamaika'ra eta emen munduaren onespina eskatu eban. Txile'ko kanoniku zan Kortes de Madariaga'ri eskutitza egin eutson eta askatasuna ames eban an be.

Bere biziaren aurkako matxinada izan eban baiña ez eban miñik artu. Inguruko euskaldunak beti lagundu eutsoen asko.

1819n. urtean batzar nagusi bat batu eba Karakas'en eta Kolonbia Nagusiko erkala sortzea esondu eban.

Jazoerak bizkor etozan eta 1821n. urtean izan zan Karabobo'ko gudaldia. Or aldarrikatu zan Benezuela'ren askatasun osoa. Tiburtzio Etxebarria bialdu eban España'ra askatasunaren arazoa aztertze ko. Bera izendatu eben Kongreso'ko lendakari eta Kukuta'n egin eban ziña. Lope de Agirre'k II Felipe'ri egin-dako eskutitza irakurri eban eta auxe dala "Amerika"ren askatasunerako Lenengo agiria" esan eban.

1822n. urtean askatu eban Ekuador eta garaille sartu zan Kito'ra. Emen alkartu zan San Martin gudalburuagaz 1824n. urtean askatu eban Peru eta Ayakutxo'ko gudaldiagaz Ego-Amerika osoa geratzen zan askatuta.

1828n. urtean beste matxinada bat egin zan bere aurka eta Mikaela Saenz de Bergara bere kutunak askatu eban.

1830n. urtean bere osasun makala makalago biurtu zan eta abenduaren 17n. egunean il zan, euskaldunez inguratuta.

**OLAZAR'tar Martin'ek**

### BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\*



ALDIZKARI ONEK  
BIZKAI'KO FORU-ALDUNDIAREN  
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

---

---

# **LEGE ZARRA (20): EZKON SARIAK ETA IRABAZIAK**

---

---

## **I LEGEA: SENAR-EMAZTEEN ONDASUNAK**

Lenengo esan eben: Senar-emazteak ezkondu eta ondorengorik izan ezkeru, bienak erdibana izan daitezela eta seme-alabarik izan barik ezkontzea banandu ezkeru, bietarik batek lur-ondasunik ekarri ba'dau, biurtu dakiola eta ondasun mogikorrik edo abere-ondasunik ekarri ba'dau, eta seme-alaba bage ezkontzea askatu, ekarri ebanak edo onen oiñordekoak eroan dagiela eta ezkondata gero irabazitakoa erdia eurentzat izan daitela.

## **II LEGEA: BIZIGARRITZAT DIRAN ONDASUNAK**

Baita: Arrioa dakarrela baserrira etorri dana, umerik izan barik ezkontzea askatzen ba'da, alargun jantzia erabili eta erdiaren gozamena izan dagiala urtebete ta egun baten, bertan bizi daitekela, eta etxerako bear dauan egurra baiño geiago ez dagiala ebagi eta ebagiten ba'dau, artu bear dauanetik kenduko jako, baiña bizitzeko bear dauana artu dagiala. Gozamen ori daukala urtea ta eguna igaro ezkeru, bakoitxak berea eskatu dagiala eta ezkon-saria kitatu arte frutuen gozamina izan dagiala eta urtea ta eguna igaro ezkeru, agiria eskiñi eta urten eragin dakiola, ez lenago.

## **III LEGEA: BESTE EZKONTZA BATEKO SEME-ALABAK DIRANEAN ZELAN BANANDU**

Baita esan eben: Seme edo alaba bateri etxea edo erretea edo lur-ondasunak ezkonsaritzat emoten ba-dautsoz, eta seme-alabak izanda ezkontzea etengo ba'litz, eta bizirik gelditu dana bitan edo geiagotan ezkonduko ba'litz, eta bigarren edo irugarren ezkontzan be umeak izan, lenengo ezkontzako seme-alabakaz batera ez dagiela besteak lur-ondasunen eskubiderik izan.

## **IV LEGEA: EZKONTZA-BITARTEAN IRABAZIRIKO ONDASUNAK**

Baita esan eben: Lenengo ezkontzara ekarritako lur-ondasunak, ezkontza orretako umerik ba'da, eta bizi dan aitak edo amak bigarren edo irugarren ezkontzea egin ba'dabe eta ondorengoak izan, eta ezkontzarako ekarritako ondasuenetan obekuntzak egin ba'dabez, ondasun guztion jabetza lenengo ezkontzako seme-alabak izan dagie-

la, etxe, solo ta obari ta guzti baia lenengo ezkontzako seme-alabok obetu danaren erdia bigarren edo irugarren ezkontzako ezkonkide edo umei ordaindu dagitsela obekuntzaren balioa iru gizonen agoz ziurtatuta, eta lenengo ezkontzakoak erdia artu dabenetik urtebetera ordaintzera dago bearturik.

## **V LEGEA: SENARRAREN EDO EMAZTEAREN ONDASUNIK EZIN DAIKE SALDU**

Baita esan eben: Senarrak uts egiñez emaztearen ondasunik ezin daikela saldu andrea bera gaiztakeri orretan kideko ez ba'da, alderantziz andrearen gaiztekeria danean...

## **VI LEGEA: SENARRAK EZKONTZAN IRABAZIAK ARTU LEIZ ZORRAK ORDAINTZEKO**

Baita esan eben: Ezkontzak dirauala senar-emazteak ondasunen batzuk eskuratu ba'dabez, gizonak bere zorrai erantzuteko artu leiz, baiña lengo ondasun utsak ba'dira, erreinuko legea gorde daitela.

## **VII LEGEA: EZKONTZA-BITARTEAN IRABAZIAK**

Baita esan eben: Ezkontzeak dirauala, senarrak bere ondasunen erdia saltzen ba'dau, eta emaztearen erdiaren erdia bereganatu nai ba'dau, ezin daike egin ori, andrearena osorik geratu daiten eta umerik izan bagerik ezkontzea askatzen ba'da, emaztea etorkia ba'da, bere ezkon-sariagaz urten dagiala, eta biengandiko umerik izan ezkeru, andreak erdiaren jabetza euki dagiala, gizonak jabetzan parterik izan bagerik.

## **VIII. LEGEA: GIZONAREN EDO ANDREAREN ONDASUN EROSIK**

Baita esan eben: Ezkontzeak dirauala soloak edo etxeak erosten ba'dira edo obekuntzak egin, ondorengorik ez ba'dauke, ezkontza askatu ezkeru, gizonaren aldekoak ba'dira onen senideak artu dagiela, andreari eta onen ondorengoai erdia emonda, eta andrearen aldekoa ba'da eresia, alderantziz.



**IX LEGEA: SENARRAK EZIN DAKE SALDU  
EMAZTEAREN BAIETZIK GABERIK**

Baita esan eben: Bietatik bat ilten danean, bizirik gel-ditu danaren ondasunari ildakoaren oiñordekoak zorraren erdia ordaindu bear dabe.

**X LEGEA: SENAR-EMAZTEEN ZORRAK  
ZELAN ORDAINDU**

Baita esan eben: Bietatik bat ilten danean, bizirik gel-ditu danaren ondasunari ildakoaren oiñordekoak zorraren erdia ordaindu bear dabe.

**XI LEGEA: GURASOEN ETXALDEA  
TA SEME-ALABAK**

Baita esan eben: Seme alabak daukazan edozein gizon edo emakumek semeari edo alabeari, edo il zan seme edo alabearen ondorengoai bere ondasun guztiak itzi daikiozala, beste seme-alaba naiz ondorengoak lur-zati bana, txiki edo aundia, emonda bazterturik, eta seme-alabarik izan ez ba'litz, baiña sasi emaztearen seme-alabarik ezin daike oiñordeko izan ezkontzakoakaz batera, aitag edo amak lur-zatiren bat emonda izan ezik, eta ez iñoz ondasunen bostena baiño gehiago. Baiña legezko seme-alabarik ez ba'lego, eta legezkoa ez dan semea edo alabea, naiz andrearena naiz gizonarena, ba'litz, olakoak ezin daitekez ondorengo izan, baiña aitag edo amak jatekoa emon leikioe eta ondasunen bostena itzi be bai. Andreak, baiña, ez eleizgizonagaz edo fraillegaz alkartzeri izan barik, orrek eriotzea merezi dauta, beste era batekeo sasikumerik, ba'leu, olakoari emon leikioz ondasun mogikorrak eta abereak. Lurrak ez. Oneik senideenak dira-ta.

**XII LEGEA: SALTZEN EDO EMOTEN  
DIRAN ONDASUNAK AGIRIAN AGERTU**

Baita esan eben: Gizon edo emakume batek etxerik edo olarik edo errotarik edo bestelako bazterrik besterenduten ba'dau esaterako seme-alabai emon, eskribauaren aurrean egin dagiala ituna, saltzen dan orren izena ezarriz eta mugak zeatzuz, illobiak be or sartzen dirala.

**XIII LEGEA: ZEAZTU BARIK EGITEN  
DIRAN EMOIZAK ZELAN ULERTU**

Baita esan eben: Etxea edo baserria dagokiozan guztia-kaz emoten danean, zalantza izan leiteke or zer sartzen dan eta oztopoak kentzeko auxe agintzen da: Emote au balioko izan daitela lur-ondasunak sort-senideentzat izan ezker, eta beste ondasunak emoteari buruz, berezi dagiala zer emoten dauan eta ezer bereziten ez ba'da, baserria eroateko bear diran apaindura ta eder-gailluak eta etxe aretan dagozan upel, kutxa ta ogeak aditzen dirala.

**XIV LEGEA: ONDASUN MOGIKORRAK,  
LUR-ONDASUNAK ZELAN BANATU**

Baita esan eben: Gizon naiz emakume batek ondasun mogikorrak ba'daukaz, beiak, idiak, abereak, naiz liñuzko ta ulezko jantziak naiz urre ta zidar, zein beste edozein ondasun, legezko seme-alaba edo ondorengorik izan ezker, ondasun guztien bosenera arte bere gogora erabilli naiz itzi dagiala, ez geiagorik; ondorengorik ez ba'leuko, ordaindu begi ondasun mogikorrakaz, ez lur-ondasunez.

**XV LEGEA: URIETAKOEN ONDASUNAK  
LUR LAUAN ZELAN ERABILLI**

Baita esan eben: Urietako bizilagunak uri aretako auzipean dituan lurren gaiñera lurralde lauan beste lur batuzk ba'daukoz, bietariko lur-ondasunak nastauta erabilten diran ezker, zalantza sortzen dala. Orregaitik agintzen dabe bietariko ondasun oneik bakoitxak bere legeak daukazela eta lur laukoak sortetxeko ondasun lez erabilli daikezala.

**XVI LEGEA: EROSI DAN LUR-ONDASUNA  
TA ONDAREKOA BATERA DOAZELA**

Baita esan eben: Gizon naiz emakume batek erosi dauan lur-ondasuna ez daitela artu mogikor lez, sort-ondasun lez baiño, eta ez iñori saldu edo emon, oiñordekoari izan ezik.

**XVII LEGEA: JAKIEN ORDEZ EGIÑIKO  
EMOITZAK ZELAN BIURTU**

Baita esan eben: Iñok bere etxekoaren bateri jakien orde zerbait emoten ba'dautso, gurasoa ilten danean, emoitza biurtu dagiola emon ebanari bere ondasun lez erabilli dagian eta oiñordekorik ez ba'dago, doadunak ezin daikez ondasun orreik erabilli ez bizitza eta ez eriotzan.

**XVIII LEGEA: ZE ONDASUN ETA NORI  
EMON LEIKION**

Baita esan eben: Iñok ezin daikio lur-ondasunik kanpoki bateri emon legezko ondorengoak edo aurretikoak laugarren maillara arete izan ezker. Ondasun mogikorrak, ostera, bere naierara erabilli daikezela ondasunen bostena baiño geiago ez ba'dira.

**XIX LEGEA: ILLOBIAK**

Baita esan eben: Iñok etxea ta eleizako illobiak ezkonaritzat emongo ba'leuz edo semeren bateri-edo aginduko ba'leutso, beste seme-alabak euren aitaren edo amaren illobietan lurperatu daitekezala eta oiñordekoak ori ezin daike galazo, non lurperatu izan arren be, baiña anai-arrebond seme-alabak ezin daikeela agindu illobi orretan iñor lurperatzerik, baiña euren illobirik ez ba'dauke, laugarren mailla barruko seme-alabok, naiz legezkoak naiz sasikumezkoak izan, aurretikoen illobia artu leikee.

**OLAZAR'tar Martin'ek**

## UNAI IZENA

Euskaldunak aspaldion, santuen izenak alde batera itzi eta euskal izenak artzera jotzen dogu. Ondo dago. Baiña alegindu bear gara gure izenak nondik datozen eta zer esan nai daben jakiteko.

Gaur labur-labur, “unai” izena artuko dogu eta azalpen au egiteko Fontes Linguae Vasconum aldizkarian, 7n. zenbakian, 87n. orrian Juan San Martin’ek dakarren idaz-lan bateri jarraituko dautsagu, gaia estuegi artu bagerik.

Giza-izen au erabiltea dala-ta aspaldion gorabera aundiak izan dira eta idaz-lan au esandako aldizkarian idatzi ebana erriko izen-zerrendara joan zanean, ezintasuna aurkitu eban. Antzera jazo jake beste batzuei Eneko edo Aitor edo Gidor izenakaz. Azkenengo izen au dala-ta, Garitaonandia’k bermeotar bateri Regino’reu ordez “gidor” ezarri eutsolako izan nebazan gorabera batzuk.

Unai itz orrek beizain esan nai dau ba.

Iratxe’ko agiri zarretan agertzen da urrengo eta emen Garcia Unaia da agertzen dana 1168n. urtean.

Irugarren agiria XIII gizaldikoa da, Jerusalem’eko Jon Deunaren taldekoen artean dator, emen be Garcia Unaia.

Xabier’eko Frantzisko deunaren bizitza-liburu baten Martin Unaia agertzen da (1477).

Oraintsuago, 1880, Unaya Ezkerra agertzen da Satusregi’k azaldu dauan Orreaga’ko errementariaren kontu-liburuan eta bost urte geroago “Unayaneke condia”.

Elerti-liburuetan sarritan agertzen da eta itzulpenak be egiten dautsoez itzari.

Euskereak ez dauko lateñeko “pastor” itzaren esangura zabala agertzen dauan itzik: ardiene danean artzaia esaten da, eta Sabino Arana’k artzaia ta unaia aurean eukazala, unaia artu eban “pastor” euskeratzeko.

1596n. urtean “Refranes y sentencias” liburuan “pasto-

res” euskeratzeko “unaiak” agertzen da, baiña liburu bertan beste leku baten “arzayoc”.

Oienart’ek, 1657, “ulhainac” dakar.

Lope de Isasi’k, 1850, “unayac” idazten dau eta vaqueros erderatzen da. Mogel’ek ostera, esaldi bera dakar baiña “unai” bagerik, “artzain” artzen dau.

Zubero-aldekoak “ülhañ” idazten dabe, 1889. Ortik Be-Naparroa’n be “ulhain” Baztan’eu XVIII gizaldian “unaiei” agertzen dan.

Aita Villasante’k 1968n. urtean Oiñatiko euskera idazlanean (Egan 1968, 92) “Unain” itza Oñati’n ezaguna dala diño eta beizaiña esan nai dauala eta Aloña-aldean Unamendi izeneko etxe bat be ba-dagoela.

Mitxelena’k bere idazki zarren liburuan “Eneko artzaia” eta “Garcia unaia” dakaz XIII gizaldiko lez.

Araba’ko Atauri’ko agiri baten 1661n. urtean, “unaitxipi” agertzen da.

Pedro Zabala’reu Toki-izenen liburuan, unai beizaiña dala agertzen da.

Erro aranean serbitzailleari unaia esaten jake eta etxe askok dauke euren izenean unai itzagaz zer-ikusia.

Larramendi’k bere iru izkuntzako iztegiat itzaia ta beizaiña, unai dirala diño.

Azkue’k bere iztegiat Goi-naparroan, Be-naparroan, Gipuzkoa’n, Erronkari’n eta Bizkaia’n unai esaten dala diño.

Pierre Lande’k bere iztegiat, lapurteraz eta Benaparroa’ko izkeraz unai esaten dala dakar.

Jose M<sup>a</sup> Iribarren’ek bere iztegiat una beizaiña dala agertzen dau.

Eta, azkenez, Plazido Mujika’k bere iztegi ederrean, Boyero/itzain edo unai leku guztietakoa dala dakar, bardin vaquero/beizain, unai eta “pastor” artzain dala.

**OLAZAR’tar Martin’ek**

### NASTEAN

Gaztelerea Gaztela’ko iparraldean sortu zan eta sortzailleak orduan an bizi ziranak, euskaldunak izan ziran.

Gaztelera ez da ba, besterik euskaldunak txarto berba egin eben latiña baiño.

Ori baiezteko or daukaguz gaur be Burgos’ko iparaldean dagozan ainbeste toki-izen euskaldun.

Idazleen artean, or daukaguz Donemiliane’ko azalpen edo glosak, batzuk gaztelera ta bi euskeraz: “Izioki” eta “Ajutu ez dugu”: Gaztelera sortzen dago eta orreik dira

euskeraz be lenengo esaldi idatziak.

Gaztelereak gauza eder bat dauka euskeratik artua, bost abots bakarti edo bokal garbi-garbiak, Europa guztia’n beste izkuntza batek be ez daukazanak.

Gaztelera’ko jostakera be “Mio Zid” edo Bertzeoko’ko Gonzalo olerkariaren aldiat eta Fernan Gonzalez’eu olerkia idatzi zanean, parasintatikoa zan euskereat dan lez. Esaterako: Mio Cid se despidió de su esposa D<sup>a</sup> Jimena y salió de San Pedro de Cardena y atravesó toda Castilla y llegó a Valencia... Orrelan


idazten zan orduan, jostakera leunean, euskeraz lez. Gero Ber-jaiotzaldiatan etorri ziran aldakuntzak gaztelera ta onelan geratu ziran esaldiak: Mio Cid, después de despedirse de su esposa D<sup>a</sup> Jimena, dejando atrás San Pedro de Cardena y habiendo atravesado toda Castilla, llegó a Valencia... Gaur be euskerak gorroto dau “hiposintactico” edo esaldi maillatuen idazkera au. Euskereat parasintaktikoa da, antxiñako gaztelera zan lez.

**OLAZAR’tar Martin’ek**

EUSKALDUN BARRIENTZAT



AMAR ERRU AURKITU BEAR DOZUZ!



MARRAZKI ONETAN ZATI BAT FALTA DA. ZEIN?

# BBK

**EUSKERAZALEAK**

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.  
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 Euro)

# txartelak



## **BBK txartelek opariak gordetzen dituzte**

Ordaindu erosketak edozein  
BBK txartelekin eta, hilero,  
itzelezko opariak irabazi ahal  
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

[www.bbk.es](http://www.bbk.es)

**bbk<sup>2</sup>**